



**EBAZPENA**, 2025eko urtarrilaren 22koa, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eragin-eremuak eta horien eremu mugakideak mugatzen dituen, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Hezkuntza Sailburuaren 2024ko abenduaren 18ko Aginduak (2025eko urtarrilaren 8ko EHAA), Hezkuntza Sailaren mendeko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan 2025-2026 ikasturtean izena emateko eskabideak aurkezteko egutegi komuna eta onartzeko epea, bai eta ikastetxe horietan ikasleak onartzeko jarraibideak ere, ezartzen ditu.

Aipatutako Aginduaren II. eranskineko 3. jarraibidean xedatutakoaren arabera, honako hau

#### EBATZI DUT:

Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eragin-eremuak eta horien mugakide diren eremuak onartzea, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan. Eremu horiek Ebazpen honen eranskin gisa agertzen dira: I. Araba, II. Bizkaia, III. Gipuzkoa.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:  
(<https://www.euskadi.eus/onarpena-haur-lehen-eta-derrigorrezko-bigarren-hezkuntza/web01-a2hikast/eu/>)

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 22an.

Hezkuntza Politiketako sailburuordea,  
La Viceconsejera de Políticas Educativas,

Sin./Fdo.: Lucía Torrealday Berrueco

**RESOLUCIÓN**, de 22 de enero de 2025, de la Viceconsejera de Políticas Educativas, por la que se delimitan las áreas de influencia y las áreas limítrofes a las anteriores de los centros públicos dependientes del Departamento de Educación y de los centros privados concertados de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa en los niveles de Educación Infantil, Primaria y Secundaria Obligatoria.

La Orden de 18 de diciembre de 2024 (BOPV de 8 de enero de 2025), de la Consejera de Educación, establece el calendario común de presentación de solicitudes y plazos de admisión, y aprueba las Instrucciones para la admisión de alumnos y alumnas para el curso académico 2025-2026, en Educación Infantil, Primaria y Secundaria Obligatoria, en centros públicos dependientes del Departamento de Educación y en centros privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En virtud de lo dispuesto en la Instrucción 3ª del Anexo II de la citada Orden,

#### RESUELVO:

Aprobar las áreas de influencia y las áreas limítrofes a las anteriores de los centros públicos dependientes del Departamento de Educación y de los centros privados concertados en los niveles de Educación Infantil, Primaria y Secundaria Obligatoria que figuran como Anexos I (Álava), II (Bizkaia) y III (Gipuzkoa) a esta Resolución.

Contra la presente Resolución se podrá presentar Recurso de Alzada ante la Consejera de Educación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en la web del Departamento de Educación:  
(<https://www.euskadi.eus/admision-educacion-infantil-primaria-y-secundaria-obligatoria/web01-a2hikast/es/>)

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 2025.

